

# Autotratamendurako gida



## Bizi kalitatea hobetzen autonomia pertsonalerako bidean




# Kolaborazioak

Arantxa Aguirre medikua, Donostia Ospitale Unibertsitarioko hematologoa, José Javier Carrera Hernani jauna, Ashegui-Gipuzkoako Hemofilia Elkarteko lehendakaria eta Asvahe-Euskadiko Hemofilia Elkarteko lehendakariordea., Amaia Argarate Maiztegi andera, Asvahe-Euskadiko Hemofilia Elkarteko lehendakaria, Euskarara itzulpenak egin dituzten taldeari aipamen berezia Amaia Argarate Maiztegi anderea eta Jone Iturrioz Ollo andera; eta Idoia Careche Recacoechea anderea, pedagoga terapeuta eta psikologoa.

# Eskerrak

Ashegui-Gipuzkoako Hemofilia Elkarte eta Asvahe-Euskadiko Hemofilia Elkarteetako Zuzendaritza taldekoei aipamen berezia egin nahi diegu, baita beraien laguntzarekin argitalpen hau posible egin duten elkarteei ere.



# AURKIBIDEA

## Sarrera

Onura eta arriskuak  
Talde lanean  
Rol eta Erantzukizunak

## Arriskuak baloratzen

Ohiko odoljarioak  
Gorputz-adarretarako arriskutsuak diren odoljarioak  
Bizia arriskuan jartzen duten odoljarioak

## Hemorragien tratamendua

Tratamenduaren oinarri orokorrak  
Odoljario eta hemorragietarako lehen sorospinak: AIKA  
Dosia kalkulatzeko  
Faktorea sarraraztea

## Kontuan hartzekoak

Erreakzio alergikoak  
Inhibidoreak  
Ekidin behar diren botikak

# AUTOTRATAMENDUARI

## SARRERA

Nazio mailan, hemofilia eta beste koagulopatia kongenitoak dituzten pertsonentzako autotratamendurako programak, 1982an Osasun Ministerioak dekretuz sinatu zuenetik daude (BOE 1982/06/02 131zbki, 14772 orria). Argitalpen honek hasiera markatu zuen... eta ordutik aurrera hemofilia elkarteak hezi eta informatzeko ardura hartu zen. Programa horien alderdi batzuk asko aldatu dira urteetan zehar, baina afektatuek ospitaletik kanpo tratamendua izan dezaten helburu nagusiak berdin jarraitzen du.

Autotratamenduak, bai afektatuak eta baita bere senideek ere, ospitalearekiko menpekotasun gutxiago izatea ahalbidetzen du, horrela independentzia handituz eta odoljarioen tratamendu azkarrago bat erraztuz.

Koagulazioarekin arazoak badituzu edo arazoak dituen pertsona bat zaintzen ari bazara, gida honek koagulazio arazo hori etxean modu seguruan tratatzen lagunduko dizu. Ebaluatzen ikasiko duzu eta Ospitaleko adituen trebetasunak ikasiko dituzu, baina jakin behar dugu autotratamendu

seguru baten oinarria, norberaren limiteak ezagutzea dela. Batzuetan tratamendu gehigarri bat beharko duzu, beraz, normalean tratatzen zaituen medikuarekin harremanetan egotea inportantea da. Ahal duzun guztia ikasi eta ez izan galdetzeko beldurrik. Elkarrekin antolatzen dituen Autotramendurako tailerretan parte hartzen hasten zarenean, Autotratamenduaren onura eta arriskuak ezagutuko dituzu, baita zure buruaren zaintzan independenteago zaren heinean barneratu beharko dituzun rol eta erantzukizunak ere.

Gure odoljarioak kudeatzen jakin behar dugu, erabili beharreko tratamendua eta faktorea sarrarazten dugun momentua kontrolatuz.



# Onura eta arriskuak

## Onurak

Autotratamenduak ondorengo egiteko aukera ematen dizu :

- ✓ Odoljarioak azkarrago tratatzea
- ✓ Ospitaleko tratamenduaren menpe ez egotea, honela etxetik, eskolatik edo lanetik kanpo denbora gutxiago egotea.
- ✓ Artikulazioen egoera hobetzeko diren profilaxis programetan errazago parte hartzea.
- ✓ Ekintzetan, espezialistek gomendatutakoak barne, parte hartzea normalizatzea, eta independentzia gehiago izatea.
- ✓ Ondorioak gutxitu eta Faktorearen dosia txikitu.



## Arriskuak

Autotratamenduak dituen arriskuak hauek dira:

- Beharrezkoa ez den mina, sufrimendua, atzeratutako tratamendu batek eragindako ezgaitasuna.
- Faktorearen dosifikazio okerra, odoljario grabeez konturatzeko edo ospitaleko espezialistei komunikatzeko arazoak.
- Faktoreak eragiten dituen ondorio txarrez konturatzeko arazoak.
- Faktorea gaizki gordeta izateagatik, faktoreak bere eragina ez egitea.
- Zainak edo zainetan zuzenean sartzen dugun gailuren bat infektatu edo hondatzea.
- Orratza zainetan gaizki sartzeak eragindako kalteak.

# Ekipoarekin lanean

Modu asko daude Autotratamenduaren arriskuak gutxitzeko.

Ondorengoak aipatuko ditugu:

- Koagulazioaren desoreka ongi ulertuz.
- Zure elkarteak antolatzen dituen tailer eta ikastaroetan parte hartuz, horrela, esperientzia/trebetasuna hobetu eta ebaluatzeko gaitasunak sendotu ahal izateko.
- Espezialistekin elkarlana landuz; beraiekin autotratamendua eta ebaluazioari buruz eztabaidatuz. Zuzenean zainetan orratzak sartzea barneratzen dituzten metodoak barneratuz.
- Autotratamendu guztien erregistro bat eginez, eta erregistro horiek espezialistekin konpartituz.
- Ospitaleko espezialistak bisitatuz.

## Erregistroak mantendu eta gordetzen

Autotratamenduko orrietan edo horretarako elkarteak emandako erregistro elektronikoan erregistratu tratamendu bakoitza. Ondorengo informazioa jaso duzula ziurtatu:

- Tratamenduaren egun eta ordua
- Tratamenduaren arrazoa: (hemorragia/trauma edo profilaxiaren informazio zehatza)
- Odoljarioaren kokapena (min, mugimendu edo handituaren informazioa aipatuz) .
- Faktorearen izena .
- Produktuaren lotea.
- Erabilitako unitate kopurua.
- Tratamenduaren eraginkortasunari buruzko aipamenak.
- Erabilgarria izan daitekeen beste edozein informazio, adibidez, beste medikamentu batzuk erabili badituzu.

**Zure hematologoak zure beharretarako tratamendu hoberena jasotzen ari zarela jakiteko balio du informazio guzti honek. Erabiltzen duzun produktuari buruzko informazio eguneratua izateko ere balio du.**





# Rol eta erantzukizunak

**Autotratamendurako Programan zure Tratamendu zentroak ondorengoa azalduko dizue zuri eta zure senideei:**

- ☀ Zure koagulazio desorekari buruzko informazioa, behar duen tratamendua eta hemofiliari kontra egiteko eskura dituzun produktuak.
- ☀ Autotratamenduari buruzko informazioa, Faktorea nola lortu, nola ongi gorde, edota nola erabili materiala modu seguruan.
- ☀ Faktorea nola prestatu eta erabiltzen Ikasteko saioak.
- ☀ Odoljarioen eta tratamenduen ebaluazioari buruzko eguneratutako ikasketak. Honekin batera HEMATOLOGIA ZERBITZUAREKIN harremanetan noiz jarri behar zaren esango dizute.

**Autotratamenduarekin hasi baino lehenago ondorengoak egiteko gai zarala frogatu behar duzu:**

- Zure koagulopatia zehazki deskribatzea
- Odoljario ezberdinek dituzten sintomak eta hauek tratatzeko era hoberenak deskribatu.
- Faktorea modu egokian prestatu eta erabili.
- Faktorea modu egokian gorde.
- Erabilitako ekipoa modu seguruan eskuratu.
- Odoljarioari buruz eztabaidatzeko, zure Hematologia Zerbitzuarekin noiz harremanetan jarri behar duzun jakitea.
- Ospitaleko espezialistekin bisitetan ohiko errutina bat mantentzea.
- Tratamenduen erregistro zehatzak mantendu, eta adostutako datetan aurkeztu.

**Aurretik azalduko irakurri dut, autotratamenduaren onura eta arriskuak ulertzen ditut eta ados nago deskribatutako rol eta erantzukizunekin.**

# Odoljarioen ebaluazioa

## Ohiko odoljarioak

### Ehun bigunean edo muskulu-ehunean odoljarioak

#### Zer da bilatuko beharrekoa:

- Odoljarioaren tamaina handitzen bada, ordu gutxi barru honen azalera neurtzeko zinta metrikoa erabili ezazu. Gorputzaren ezkerreko eta eskuineko zatiak alderatu itzazu. Zinta metrikoa eskura ez baduzu, denbora tarte txikietan odoljarioaren tamaina handitzen doan aztertu ezazu.
- Odolbildearen handitzea gertatzen denean. Boligrafoa erabiliz odolbildearen ingurua markatu ezazu eta denbora tarte txikietan odoljarioaren tamaina handitzen doan aztertu ezazu.
- Muskulua gogorra, tenkatua jartzen denean, ezkerreko eta eskuineko zatiak alderatu itzazu, diferentziak aztertzeko. Konkorrrik sumatzen duzu? Zer nolako tamaina du? Konkorra mugitzen da edo mugimendua mugatua du?
- Denborarekin odolbildeak eragiten duen mina gehitzen doa, are gehiago, ikusten ez diren alerta-seinaleak sortzen dira, odoljarioa lokalizatzeko lagungarriak direnak.

## Zer egin:

- Mina hartutako pertsona geldik egon behar du, bere eginkizunak alboratuz.
- A.I.K.A. prozedura jarraitu eta espezialistak emandako jarraibideak kontutan hartuta faktorea sartu.
- Jarraipen zehatza egin hobetze seinaleei, handitasuna, odolbilduen koloreen aldaketa, berdetik horira, mina gutxitzea.
- 24 ordu igaro ondoren odoljario hobekuntzarik ez badu zure HEMATOLOGIA ZERBITZUARI jakinarazi.
- Izotza jarri.

**Odol jarria ebaluatzeko  
zalantzak badituzu jarri  
harremanetan zure  
HEMATOLOGIA  
ZERBITZUAREKIN edo  
larrialdietara joan.  
Laguntza eskatzea  
ikazteko modu hon bat  
da ere.**



## Artikulazioetako odoljarioak

Osasun langileek artikulazioen mugimenduaren ebaluazioa egin dezakete, hala nola, belaunak, orkatilak, ukondoak, begiratzuz, leun ukituz eta neurtuz. Egunero artatu zure artikulazioak, batez ere, haurra txikiak direnean eta, gai ez direnean mina ematen dien artikulazioa identifikatu eta esateko. Jarrian deskribatzen diren sintomak izanez gero, haurrak, lehen bait lehen, helduei aditzera eman dezaten erakutsi.

### Zer da bilatu beharrekoa:

- Ohiko mugikortasuna ez duen artikulazioa. Ezker eta eskuineko artikulazioen mugikortasuna alderatu.
- Mina eta gogortasuna artikulazioan, odolbildua agerian ikusi edo ez.
- Handituta edo bero dagoen artikulazioa, odolbildua agerian ikusi edo ez.
- Haurrak txikiak direnean ohikoa ez den negarra eta kexak, edota, egunero erabiltzen duen eran besoak edo hankak mugitu nahi ez izatea. (adibidez, hanka bat luzatuta lau oinetan ibiltzea, aurretik arazorik Gabe ibili denean)
- Astuntasuna artikulazioetan edo gorputz-adarretan.

## Zer egin:

- ✘ Mina duen pertsona geldi egon dadila eta bere ohiko ekintzak alboratzea.
- ✘ Espezialistak emandako jarraibideen arabera RICE eta Faktorearen konzentratuarekin tratatu odoljarioa.
- ✘ Zure HEMATOLOGIA ZERBITZUARI odoljarioen berri eman.
- ✘ 24 ordu igaro ondoren odoljarioak hobekuntzarik ez badu egin zure HEMATOLOGIA ZERBITZUARI jakinarazi.
- ✘ Izotza jarri.

## Intereseko puntua: Badakizu artikulazioak ondo mantentzen?

- Ordezko ekintzak eginez odoljarioak aurrez babestuz.
- Behar bezala eta lehen bait lehen odoljarioak tratatuz.
- Atsedean hartuz eta odoljarioak izan ondoren errehabilitazioa eginez.

# Muki-mintzetan odoljarioak

## Ahoko odoljarioak

### Zer da bilatu beharrekoa:

- ☀ Hortzoian eta mihian odoljario nabarmenak.
- ☀ Hortzoietan odolbilduak.
- ☀ Askotan edo maiztasunez inrenstea.
- ☀ Gazi edo metalezko zaporea ahoan.



### Zer egin:

- ☀ Lasaitasunez jardun eta min hartutako haurra bada distraitu.
- ☀ Otordu eta janari otzak har ditzala, helatuak adibidez.
- ☀ Sendagileak emandako jarraibideen arabera Faktorea jarri.
- ☀ Antifibrionolitikoak jarri (Anchafibrin), ahoko odoljarioetan oso garrantzizkoa da.
- ☀ Trauma konkretu baten aurrean, lehen bait lehen, laguntza medikoa eskatu, batez ere 20 minututan ez bada geratu, edota odoljarioa jarraitzen badu.
- ☀ Janari-minak hartzea ekiditu, hortzoiak minberatu daitezke, batik bat, hortzoietan aurrez odoljarioak izan badira.
- ☀ Edateko lastotxoak erabili. Ertz larriak dituzten janariak ez hartu (Chips), hauek, hortzoietan odoljarioak sortu ditzazkete edo aurrez odoletan egon diren hortzoietan odoljarioak sortu.
- ☀ Azalaren zurbiltasunari, ariketa fisikoa egiterakoan arnasari, eta gorotzen kolore ilunari arreta jarri.
- ☀ Burua goruntz duzula lo egin.

## Sudurreko odoljarioak



### Zer da bilatu beharrekoa:

- Sudur zulueta bakarreko edo bietako odoljarioa.
- Mukizapian edo Klinixean odola mukiak kendu ondoren.
- Askotan edo maiztasunez irenstea.
- Gazi edo metalezko zaporea ahoan

### Zer egin:

- Lasaitasunez ihardun eta min hartutako haurra bada distraitu.
- Sudur zulueta presioa egin eta buruz behera jarri. Lagungarria da lotarako bi edo bi buruko erabiltzea, burua alboratuz.
- Sudurra bere zubi azpitik irmoki estutu. Tratamendua hartu ondoren 10 minutuz estutuz jarraitu.
- Lepo atzekaldean eskuoihala jarri eta hau berotzen denean aldatu.
- Sendagileak emandako jarraibideen arabera Faktorea jarri.
- Antifibrinolitikoak jarri (Anchafibrin), ahoko odoljarioetan oso garrantzizkoa da.
- Azalaren zurbiltasunari, ariketa fisikoa egiterakoan arnasari, eta gorotzen kolore ilunari arreta jarri.
- Trauma konkretu baten ondorioz sudurreko odoljarioa bada, lehen bait lehen, laguntza medikoa eskatu, batez ere 20 minututan ez bada geratu, edota odoljarioa berriak gertatzen badira ordu gutxitan eta hauek minutu gutxiren barru ez badira eteten.
- Kolore argiko konpresa eta eskuoihalak erabili odola ikusi ahal izateko.

# Gorputz-adarretako odoljarioak

Muskuluak odol-hodi ugariz osatuta daude. Hatzimurkadak, kolpe edo mugimendu larri batek muskuluaren ehuna urratu dezake, odoljarioa suertatzen delarik. Muskuluak erraz luzatzen direnez, min hartutako odol-hodietatik odol asko isuri daiteke ondoko ehunera, odoljarioaren eragina sentitu aurretik. Kasu batzuetan suertatu daitekeen odoljarioaren ondorioz eta honen lokalizazioa dela eta, mina larria izan daiteke.

Gorputz-adarreko odol-hodietan edo nerbioetan, odoljarioaren ondorioz gertatzen den handitasunaren presioa oso larria izan daiteke. Odol-hodietako presioan odolaren zirkulazioa ekiditen du eta gorputz-adarraren ehunen ilkortasuna eragiten du. Bestalde, nerbioetako presioak mugimendua eta sensibilizaioan eragina du. “Konpartimentuaren Sindrome” ezinez ezagutzen da. Larria bada zirujia beharrezkoa izan daiteke odol-hodietako presioa kentzeko eta gorputz-adarrean betiko kalteak ez daitezen suertatu.

Ukondoko, zangozarretako eta psoas mukuluetan gertatzen dira gehienetan, gorputz-adarretan ohikoak dira odoljarioak.



## Zer da bilatu beharrekoa:

- Min hartutako gorputz-adarrean edo muskuluan zapalketa sentrazioa.
- Min hartutako zati inguruan inurridura edo gogordura sentrazioa.
- Handitasuna, azaleko kolore disdiratsua.
- Mina.
- Odojarioaren azpitik azala kolore zurizta.
- Min hartutako zatian bero edo hotz sentrazioa.
- Konpartimentuaren Sindromea oso mingarria da eta, inurridura, gorputz-adarraren zurbiltasuna, sentzibilitate falta ere eragiten ditu, baina, garrantzi gehiena duen sintoma, mina da. LARRIALDIA DA.

## Zer egin:

Aurrez azaldutako sintomaren bat azaltzen bada, **Faktorea jarri** zure hematologoak emandako argibideei jarraituz, eta larrialdietako zerbitzura joan zure larrialdietako gidarekin.



*Bernako muskuluko odoljario handi batek alde horretako hankako orpoa igotzen du.*

*Odola doa muskulura eta zaila da hau luzatzea; honen eraginez pertsona horrek oin hortako behatzekin ibili beharra dauka.*

## Psoas muskuluaren odoljarioa

Psoas muskuluak (“p” ahotsa kenduz), pelbisean dagoen, behe sabelaldeko ezkerreko eta eskuineko aldeetan daude.. Muskulu hauek bizkar-hezuraren behean elkarturik daude, gorputzaren atzekaldeari eta izterrezurraren aurrkaldeari lotuta. Zutik zaudenean zure aldakeei eusten diete. Muskulu hauek, izterra goratzen duzunean edo aldaka erabiliz aurrerantz makurtzen zarenean erabiltzen dira. Psoas muskuluetan daude hanketara odola eramaten duten odol hodiak eta zenbait nerbio.


Psoas muskuluetan sorteen diren odoljarioak handitasuna sortu dezakete eta honek aldi berean nerbioetan eta odol hodeietan presioa egiten du. Odoljario mota hau gorputz adarrarentzat oso larria bihurtu daiteke eta askotan ospitalizazioa beharrezkoa izaten da, ohean geldi egonean egoteko eta fisioterapia intentsiboa hartzeko.

### Zer da bilatu beharrekoa:


- Ez ohiko gorputz jarrera erabiltzea ibiltzerakoan edo zutik egoterakoan, oineko hatzak erabiliz, gorputza alde batera edo aurrerantz makurtzea eta ipurmasailak goruntz edukitzea.
- Hankak zuzendurik etzanda ezin egona.
- Bizkar hezuraren, aldaketan, inglean edo iztarreko aurrekaldean mina edukitzea.
- Izterreko kanpoaldean gogordura edo inurridura sentitzea.
- Ez duzu handitasunik ikusiko, zurbiltasunik edo odolbildurik- Horrelako odoljarioetan berotasunik ez da nabarmentzen. Psoak muskuluak gorputzaren sakonean daudelako.

## Zer egin:

- Eguneroko ekintzak geratu eta erabateko atseden egoeran Egon.
- Faktorearekin tratatu, odoljario larrietarako emandako jarraibideei jarraituz, zure HEMATOLOGIA ZERBITZUARI berri eman eta lehen bait lehen zure erreferentziazko ospitaleko larrialdi zerbitzura bertaratu, larrialdietako zure gidarekin.



**Psoasean  
odoljarioa duen  
pertonaren  
postura**



# Bizitzarentzat arriskutsuak diren odoljarioak

**OHAR GARRANTZITSUA:** Ondoren aipatzen diren gorputz zatietan gertatzen badira bizitzarentzat arriskutsuak izan daitezke eta berehalako sendabidea behar dute

## Burua

Gorputzaren funtzio gehienen kontrola mantentzen du garunak, beraz, edozein odoljario burmuinean oso larria da. Odoljario hauek garuneko kalte larria edo heriotza sortu dezakete.

### Zer bilatu:

- Buruko mina
- Goragalea edo gorakoa.
- Pertsonalitate edo umore aldaketak.
- Lozorroa.

- Oreka galtzea.
- Mugimenduen koordinazioaren galera.
- Kontzientzia galera.
- Uzki-esfinterren kontrol galera.
- Hurrei zuzendutako neurri zehatzak: garezuraren zirkunferentziaren handitzea denbora epe laburrean, haserrealdiekin eta garezuraren goiko aldeko zati biguinetako handitasunarekin bat etorriz.

### Zer egin:

Aurrez azaldutako edozein sintoma hantzemanez gero, Faktorea jarri, lehen bait lehen eta espezialistak emandako jarraibideei jarraituz. zure HEMATOLOGIA ZERBITZUARI berri eman eta lehen bait lehen zure erreferentziazko ospitaleko larrialdi zerbitzura bertaratu.

Odoljario hauek tratatu gabe geratzen badira, begietako kalte larriak gertatu daitezke eta ondorioz betiko ikusmen galera izango da. Mesedez, zure Hematologia Zerbitzuarekin harremanetan jarri.

## Lepoa

Sudurrean, ahoan eta eztarrian odol hodei asko daudenez, ehunak kaltetu daitezke eta infekzioa sortu maiztasunez. Aldi berean, gorputz zati hauetako ehunetan odolez betetzen direnez biriketara airea ematen duten hodietan presioa egiten dute eta arnasa hartzeko ezina eraginez edo erabat itxi ditzazke arnasa ekidituz

### Zer bilatu:

- Eztarri edo lepoko mina
- Handitasuna
- Irensteko zailtasunak
- Arnasa hartzeko zailtasunak
- Eztatia estutzerakoan zarata (elurra zapaltzerakoan egiten denaren antzekoa)

### Zer egin:

Aurrez azaldutako sintometako edozein azalduz gero, Faktorearekin tratatu, lehen bait lehen eta espezialistak emandako jarraibideei jarraituz, zure HEMATOLOGIA ZERBITZUARI berri eman eta lehen bait lehen zure erreferentziako ospitaleko larrialdi zerbitzura bertaratu.



Kontaktuko kirolak bizia arriskuan jartzen duten odoljarioen larritasuna handitzen dute.

## Bularraldea

Gorputzaren barrunte honetan birikak, bihotza eta garrantzi gehien duten odol hodiak daude. Bularraldeko edozein lesioa dela eta biriketako ehunetan odoljarioa sor dezake eta ondorioz airea dagoen barrunbeetara odola bideratuz, ondorioz arnasa hartzeko larritasuna, ezina gertatzen da.

### Zer bilatu:

- Bularraldeko mina
- Arnasa hartzeko ezintasuna
- Eztula odolarekin
- Zurbiltasuna azalean
- Indar falta



## Sabelaldea

Gorputzaren barrunte honetan, urdaila, barea, gibela, giltzurrunak eta hesteak daude. Gorputzaren zati hauetako lesio baten ondorioz odoljario larria suertatu daiteke organo hauetan edo odol hodei garrantzizko batean. Sendabide ezean heriotza sor dezake.

### Zer bilatu:

- Mina sabelaldean
- Goragalea edo gorakoa
- Odola pixean
- Kakak kolore beltzekoak edo odolarekin

### Zer egin:

**Aurrez azaldutako sintometako edozein azalduz gero, Faktorearekin tratatu, lehen bait lehen eta espezialistak emandako jarraibideei jarraituz, zure HEMATOLOGIA ZERBITZUARI berri eman eta lehen bait lehen zure erreferentziako ospitaleko larrialdi zerbitzura bertaratu.**

# Odoljarioen tratamendua



Atal honen barne, lehen sorospinak, Faktorearen dosi zuzenak kalkulatzea eta Faktorearen tratamendua jartzeko zain barneko informazioa jasotzen du.

## Tratamendurako oinarri orokorrak

**Edozein odoljarrio tratatzerakoan, zenbait oinarri orokorrak barneratuta izan behar dira:**

1. Odoljarrioaren berri izan bezain laister tratamendu jarri. Tratamenduarekin azkar hasiz gero, odoljarrioa lehenago etengo da. Zalantza izanez gero, Faktorea jarri.
2. Faktorea isuraldatzearekin batera, odoljarrioa lehen bait lehen eten dadin erabili ezazu beti A.I.K.A.

3. Odoljarioaren ezaugarriari dagokion Faktore kantitatea erabili, Hematologia Zerbitzuak emandako irizpideei jarraituz.
4. Odoljarioa tratatzen ari zarenean, Hematologia Zerbitzura deitu, tratamendua egokitzeko, lehen sorospenak eta erabili beharreko dosia ere egokitzeko. Beti faktore-anpoila oso erabili, beti ere zure medikuak beste era batetara erabiltzeko agindua ez badu eman.
5. Faktorearen horniketa egiaztatu. 500 eta 1000 bitarteko unitateko neurriko faktore anpoiletan hornitzen da faktorea, unitate neurriak, laborategi hornitzailearen arabera, aldatu daitezke.
6. Produktuarekin zalantzarik baduzu, hau da, produktua ez bada disolbatzen edo, produktua tintatua badago, ez erabili. Zure hematologoari berri eman eta zure erregistro pertsonalean gorabehera idatzi ezazu.



Zalantzak izanez gero,  
zure erreferentziako  
Hematologia Zerbitzura  
deitu, laguntza eskatuz.

7. Iraungitze data begiratzeaz ez ahaztu.
8. Edozein dela arrazoia, zalantzati bazaude egin beharreko prozeduraz edo tratamendua ondo joango zaizun zalantzarik baduzu, erreferentziazko Hematologia Zerbitzura deitu edo bertako larrialdietako zerbitzura bertaratu laguntza eske.
9. Odoljarioa bakarrik ez tratatzea gomendatzen da. Dena den, bakarrik egin behar baduzu eta laguntza behar izanez gero nola lortu informatuta egon behar duzu.
10. Eguneko norbere tratamendurako zure trebetasuna zaindu. Zure hematologoak aholkatuko dizu eta ebaluazio klinikorako ohiko bisitetan, informazio berrietaz informatuko dizu.
11. Zure autotratamenduaren erregistro zehatza egin. Ziurtatu behar dituzu honako datuak, data, odoljarioaren kokalekua eta tratamendua jartzeko arrazoia erregistratuz. (Adibidez: odoljarioa, profilaxia, erabilitako unitate kopurua eta honen segimendu eta lote zenbakia).
12. Zure hemofiliko karneta gainean eraman beti.

# Odoljarioentzako lehen oinarrizko laguntza:

## A.I.K.A

Artikulazio batean suertatzen denean odoljarioa lehen oinarrizko laguntza da baliagarriena.


Ehun bigunean edo muskulu-ehunean odoljarioa. Era honetako odoljario bat duzunean A.I.K.A erabili ( Atsedeen hartu, Izotza, Konpresioa, Altxatzea).




**Atsedeen hartu:** mina duzun gorputz adarra ez erabili. Agian muletak edo beso euskarria erabili beharko duzu.



**Izotza:** Ez jarri inoiz zuzenean izotza azalaren gainean. Txikitutako izotza edo izoztutako begetal poltsak erabili (ilarrak edo artoa) ohial edo eskuzapian bildurik.



**Konpresioa:** Min hartutako gorputz zatia hesgailu elastiko bidez bildu. Gorputz zatiaren behetik hasita goruntz egin zigzag eginez. Hotza, hozmintze, eskuko hatzak edo ohineko behatzen kolore aldaketarik gertatzen diren behatu.



**altxatzea:** Min hartutako gorputz zatia bihotzaren gorako nibelera altxatu haturaren handitzea ekiditeko, min gehiago emango du baino gutxiago handituko da hatura eta osatze denbora murriztuko da.



## Dosía kalkulatzeko

Faktorearen dosi zuzena pertsonaren pisuaren arabera izango da, hala nola egokitutako tratamendua (profilaxia, gertakari larriagoa edo larritasun gutxikoa) eta noski, gertaeraten eboluzio denbora.

VIII Faktore-konzentratuarentzat, odolean faktorearen errendimendua (edo kantitatearen gehitzea) pertsonaren osoko pisuaren kilogramoko emandako faktorearen unita bakoitzeko %2koa da, gutxi gora behera. Termino matematikoetan, honek esan nahi du, VIII Faktorearen errendimendua  $\%2/u/kg$  dela.

IX Faktorearen errendimendua , bestalde,  $0.6-\%1.2/u7kg$  da.

Dosiaren kalkuluagatik ez gehiegi arduratu. Zure hematologoak neurtu du zure tratamendua.


Gomendagarria da, noizbait zalantzaren bat suertatuz gero, norbere tratamendurako gida, eskura izatea.

## Tratamenduaren ondoren Faktorearen maila gutxitzeko tasa

Faktorearen kontzentrazioari buruz eta tratamendu gidak hobeto ulertzeko, garrantzitsua da zuzentzat ulertzea produktu hauen iraupena zure gorputzean, tratamendua hartu ondoren (iraupen denbora)

### Dosi bakar baten ondoren, Faktore mailak

Dosi bat



Grafiko honek, VIII edo IX Faktoreak injektatu ondoren zure gorputzean denboran zer gertatzen den azaltzen du.




- VIII Faktorea. Kasu honetan, VIII Faktorea emandako dosia kg.ko, 25 unitakoa da, VIII Faktorearen maila %50era igoz. Dosi hau hartu eta 12 ordu ondoren, gutxi gora behera, VIII Faktorearen maila %25koa da, honek esan nahi du, 12 ordu igaro ondoren VIII Faktorearen erdia desagertu dela. Erdi-bizia deitzen zaio izaera arruntean. Idazkiei jarraiki , VIII Faktoreraren ohiko bizi iraupena, 8-12 ordu bitartekoa da, grafikoan ageri den bezala.
- IX Faktorea: Gure adibidean, kg.ko 62 unitateko dosia da, kantitate honek normalki IX Faktoreren maila %50 igotzen du. Idazkiei jarraiki, IX Faktorearen ohiko bizi iraupena 18-24 ordu bitartekoa da, grafikoan ageri den bezala.

Biak kontutan hartuta, erabiltzen duzun produktuaren tratamendua eta odoljarioaren larritasunaren arabera, zenbat Faktore behar duzun eta zenbateko maiztasunarekin jarri beharko duzun kalkulatzeko ari zarenean, ezartzen da produktuaren batz besteko bizitza.

**Laburbilduz:** grafikoak adierazten du, tratamendua hartu eta 12 ordu ondoren VIII Faktorearen maila %25koa dela. 24 orduetara VIII Faktorearen maila %12koa da; 36 orduetara VIII Faktorearen maila %6koa da eta 48 orduetara, gutxi gora behera, oinarrizko mailara itzultzen da. Oinarrizko marra hau, hemofilia larria duen pertsona batentzako %0 izan daiteke , erdi mailako hemofilia duen pertsonarentzako %3koa , edo %10koa hemofilia arina duen pertsona batentzat. Maila oinarrizko marran mantenduko da Faktore berria bat sartu bitartean.

## VIII Faktorearen ohiko dosia

VIII Faktorea hartu eta geroko plasma nibelak (gorputzaren pisuaren arabera, 25 unitate/kiloko)




Mesedez, birpasatu informazio hau zure erizainarekin dosia erabakitzen duzunean

**Aurreko grafikoak azaltzen duena zera da: Faktorea 12 orduro, egunean behin edo astean hiru aldiz hartzen denean denborarekin gorputzean geratzen den VIII Faktorearen nibela.**

- 12 orduroko tratamenduak babes oso ona ematen dizu, baita odoljario handietan ere. Berandu tratatutako artikulazioetako odol jario grabeeek tratamendu gehiago behar dute. ZURE HEMATOLOGIA ZERBITZUAK horri buruzko informazioa emango dizu. Batzuetan tratamendua 12 ordurokoa izan daiteke hasieran behar izanez gero.
- VIII Faktorea egunero hartzeak babes ona bermatzen du eta hurrengo tratamendurarte irauten du.
- Astean hiru aldiko tratamenduak, egunean bertan babes ona ematen du, bigarrenetan babes pixkat eta oso gutxia bigarren eguneko gauean, eta babesik ez hirugarreneko goizerako. VIII Faktorea %25etik behera jaisten bada, lesio baten ondoren berriz odol jarioa gertatu daiteke; beraz, kontuz ibili, pertsonaren Faktore nibela grafikoaren zona horian baldin badago.

## IX Faktorearen ohiko dosia

IX Faktorea hartu eta geroko plasma nibelak (gorputzaren pisuaren arabera, 62 unitate/kiloko)



Mesedez, birpasatu informazio hau zure erizainarekin dosia erabakitzen duzunean

**Aurreko grafikoak azaltzen duena zera da: Faktorea egunero edo astean bi alditan hartzen denean denborarekin gorputzean geratzen den IX Faktorearen nibela.**

- Eguneroko tratamenduak hurrengo tratamendurarteko babesak ematen du. Autotratamendurekin etxean kudeatu ditzazkezun odol-jario gehienek hobetuko dira egunero tratatzen badituzu.
- IX Faktorearen astean bi aldiko tratamenduak, lehelengo egunean babes ona ematen du, babes pixkat bigarren eta hirugarren egunetan, eta oso babes txikia hirugarren eguneko gauean eta babesik ez laugarren eguneko goizean.

# Faktorea sartuz

## Faktorea sartu aurreko prestaketa

Ziztatu aurretik, ziurtatu behar duzu honako materiala eskura duzula (zainean ziztatzeko):

- ☀️ Torniketea
- ☀️ Alkoholezko zapiak
- ☀️ Gutxienez bi tximeleta motako orratzak, faktorea sartzerakoan arazoren bat izanez gero, agian, beharrezkoa izango duzu bat baino gehiago erabiltzea.
- ☀️ Esparadrapoa.
- ☀️ Xiringa
- ☀️ Kotoiezko gaza
- ☀️ Prestaketa egiteko gainazal garbia
- ☀️ Faktorearen konzentratua
- ☀️ Botatzeko materialarentzak kontenedorea (objektu zorrotzentzat).
- ☀️ Faktorea sartu izanaren erregistroa




Oharra port-a-cart edo zainean zuzenean jarritako dispositiboan jarri behar baduzu faktorea beharrezkoak izan ditzazkezu beste materialak ere.

## Teknika garbia

Zitxada egiten den zatian edo odol fluxu sisteman infekzioak ekiditzeko, oso garrantzikoa da faktorea sartzerakoan honako teknika garbiko jarraibideak jarraitzea.

- **Eskuak ondo garbitu beti.** Garrantzikoa da eskuak xabonatu eta gutxienez 30 segundoz igurtzitzea. Alkohola edo desinfektatzailea erabiltzen baduzu, eskuak lehortzeko beharrezko denbora hartu (gutxienez 30 segundo).
- Aztertu garbiak eta erabiliak diren materialak eta banatuta mantendu. Zerbait kontaminatua egon daitekeen susmoa baduzu, ahal bada garbitu eta bestela bota zuzenean. Zalantzen aurrean, materialak beti bota.
- Erabiliko duzun eremua babestuta egon behar du, garbia mantendu dadin.
- Asheguiko tailerretan zure erizainak erakutsi bezala erabili behar duzu materiala.





## Zaineko ziztada

- **Eskuak garbitu** xaboiarekin eta iturriko ur ibiliarekin. Ondoren eskuzapi garbi batekin lehortu.
- **Torniketea jarri**, zainean faktorea sartzeko erabiliko duzun zatiaren goitik.
- **Faktorea sartzeko erabiliko duzun larru-azalaren zatia alkoholarekin garbitu eta lehortzen utzi.** Garrantzizkoa da larru-azala lehorra egotea, germenak zainean ziztatzerakoan sartu ez daitezen.
- **Tximeleta motako orratza** hegaletatik eutsi bisela goruntz duelarik. 20 edo 30 gradutara sartu orratza zainean, marrazkian ikusten den bezala. Sistemak odol pixka bat ikusi dezakezu, horrek esan nahi du tximeleta motako orratza, zainean ondo sartuta dagoela.





- **Larru-azalaren kontaktuan mantendu eta zainean** (1-2 milimetro) **sartu pixkanaka**. Orratzak ezin da sartu tximeleta motako orratzaren hegaletaraino.
- **Orratza aseguru ezazu, mugitu ez dadin.**
- **Orratza zuzen sartuta dagoela baieztatu ezazu**, xiringaren enbolotik atzera eraginez. Horretan ari zarela, xiringaren tuboan odola ikusten baduzu, zainean faktorea sartzeko prest zaude.
- **Torniketea kendu.**
- **Faktorea sartzen hasi zaitezke, pixkanaka**, xiringaren enbolotan, presio leuna eta konstantea eraginez. Xiringa dagoen zatian, handitasunik edo mina sentitzen baduzu, xiringa zainetik atera dela, esan nahi du.
- Faktorea guztiz sartu ondoren, **orratza kendu** eta, kotoizko gasa batekin presioa egin zitzada egin duzun tokian.



- **Orratzaren tximeleta erako zatia eskutik erortzen bada edo zerbait ukitzen badu, bota eta beste berri bat erabili.**




- **Erabilitako orratza eta xiringa guztiak kontenedorera bota eta, Hematologia Zerbitzuak erakutsi bezala, xiringa eta poto guztiak kokatu itzazu, berriro hasteko.**



- **Erregistroan transkribatu itzazu tratamenduaren datuak.**

- **Kontenedorea betetzen denean Hematologia Zerbitzura eramango duzu.**






## Zainean zirtada arrakastarekin egiteko aholku baliagarriak

Zainean zirtada egiterakoan ondo egiteko aukera, prestakuntza eta teknika egokia erabiltzearen menpe dago. Behar duzun denbora hartu eta, arrakasta izateko prestatu zaitez.

- Hurrekin aritu behar duzunean arreta galtzea teknikak erabili.
- Zure eskuak eta besoak beroak daudela ziurtatu.
- Hidratazio egokia ziurtatu.
- Argitasun egokia ziurtatu (lehoi ondoan edo flexo bat erabali zirtatzeko. Flexoaren itzala ekidinez.
- Torniketea jarri ondoren, besoa jeitsi eta, eskuak ireki eta itxi behin baino gehiagotan edo gomazko pilota biguina estutu. Horrela zainak ikusgai egongo dira eta hauek sentitzen lagunduko dizu, baino denbora laburrez egin behar duzu.
- Torniketea denbora luzez edukitzea ekidin behar duzu. 2 edo 3 minutuz jarrita edukiz gero, zainak txikituko dira. Horrela gertatzen bada, torniketea kendu eta berriro hasi prozedurarekin.
- Esku edo eskumuturreko gaineko zainak zirtatzerakoan, askotan, mugitu egiten dira. Horrelakoetan, eskua edo eskumuturra beruntz flexionatu, zainak luzatzen lagunduko du eta zirtada egitea errazagoa izango da. Haurra txikiak Faktorearen potea hutsa eskuan heldu dezatela, bere eskuaren zainetan nahi den efektua lortzeko (ikusi marrazkia).

Eskugaina eta ukondoaren atzekaldea dira zainean zirtada modu erraz eta seguruan egiteko tokirik egokienak, zainek azal azpian duten posizioa dela ta.

- Sahiatu zaitetz zainaren zati zuzena aukeratzen, kurbatuak alboratuz (ikusi marrazkia).
- Zainean ziztatzeko informazio gehiago behar ezkerreko Ashegui Tailerreko zure erizainari eskatu.
- Odolez beteta sentitzen diren zainak aukeratu itzazu (azal azpiko tuboak bezala ikusten direnak).




Hona hemen haur baten eskua zainean ziztatzeko prest dagoena. Eskumuturra flexionatuta dago zaina luzatzeko (urdinez) eskumuturrean erpurura bitarte doana. Pote bat irmoki edukitzea eskuan zaina luzatzen du, haurrari tratamendua hartzerakoan laguntzeko.

**Oharra: eskumuturreko arterien (gorriz) ondoan dauden zainak erabiltzea ekidin**

Zainean ziztatzeko prest dagoen haurra baten eskua. Haurraren eskuko azala erpuruarekin behera bultzatuz gero, haurraren eskuko atzekaldeko zainak luzatzen laguntzen du, eta horrela orratza sartzerakoan ez dira mugituko.


**Oharra:** luzatutako zaina batean orratza sartzea errazagoa da, horrela kurbatutako zatiak edo ardarkatutako zainak ekiditzen dira ziztatzerakoan.



Ukondoko pleguan (urdinean) dauden zainak (kubito aurreko zatia) ziztadetarako erabiltzea ohiko da baino, kontu handia izan behar da, zainen azpiko arteriak (gorriz) ekiditeko.

**Oharra:** Autotratamendurako tailerretan erakutsiko zaizu ziztadarako zure zati egokiena aurkitzen. EZ DA ZIZTATU BEHAR HANKETAKO ZAINETAN.


## Zaineko zitzadako arazoak ebazten



Orratza sartzerakoan handitasuna suertatzen denean. Tratamendua sartzea ezinezkoa izango da.

**Tratamedua sartzeko. Tximeleta motako orratza atera. Zitzadarako zatia gutxienez 5 minutuz presioa egin. Sahitu zaitetz beste zaina bat erabiltzen, ahal bada beste eskuan.**


*Orratza 20 gradutan baino gutxiagoko angeluan sartu bada, biselak zainaren kanpoko paretan eragiten du, beraz ezinezkoa da zitzada.*



Orratzaren tuboan odola badago, aizea besterik ez dago. Zainean kontusioa.

**Zaina zulatu duzu eta orratza honen azpitik dago. Tximeleta motako orratza kendu. 5 minutuz presioa egin. Beste zaina batetan sartu.**

*30 gradu baino gehiagoko angeluan sartzen bada orratza, zainaren bi aldean zulatzen dira.*



Hirugarren saiakera egin ondoren ezinezkoa da ziztatzea.

**Hematologia zerbitzuarekin harremanetan jarri zaitez edo eta zure erreferentziako ospitaleko larrialdietara joan zaitez laguntza eskatzera, erabili ez duzun produktua eman ez, zuzen identifikatuta. Ahal baduzu produktuaren informazio ere.**

*Azalaren azpitik orratza sartzen ari zara eta zaina ezin duzu gelditu mantendu, zaina beste aldera mugitu daiteke. Orratzaren angelua zuzena da, baina zainaren gainetik igarotzen du.*

# Aparteko azalpenak

## Erreakzio alergikoak

Erreakzio alergikoak ez ohikoak izan arren, Faktorea sartu aurretik edo ondoren suertatu daitezke, garrantzikoa da ardura duen heldu bat ondoan izatea, zu zerorrek faktorea sartzerakoan edo zure seme/alabari sartzen ari zarenean.

Zitada ondoren zuk edo zure seme/alabak izan duen edozein erreakzio dela eta, zure Hematologia Zerbitzuari berri eman. Gertatu daitezkeen sintoma batzuk zehazten ditugu ondoren eta kasu bakoitzari zer nolako erantzuna eman behar zaion ere.

### Sintoma arinak

- Zitzadak/inurridura
- Urtikaria
- Sukar arina edo hotzikarak



## Zer egin

- ◆ Sartzeko ziztada geratu.
- ◆ Antihistaminikoak edo kortikoideak hartu, espezialistak agindu bezala
- ◆ Hematologia Zerbitzuarekin harremanetan jarri
- ◆ Zure Autotratamendu Orrian gertakaria idatzi
- ◆ Faktorearen konzentratuaren lote zenbakia idatzi eta, Hematologia Zerbitzuan galdetu behar duzu, lote honetako produkturik sartu dezakezun.

## Sintoma ertain-larriak

- Handitasuna
- Urtikaria larria
- Ziztadak/inurridura esku-zabalean edo oin azpian
- Kioak hitz egiterakoan

## Bizitzerako arriskutsuak diren sintomak

- Tragatzeko ezina
- Mingain astuna
- Arnasketa larria
- Zurbiltasuna
- Txistu hotsak arnasterakoan
- Aurpegiko eta lepoko handitasuna

## Zer egin

- ◆ Sartzeko zitzada geratu
- ◆ Erreferentziako ospitalera eramateko anbulantziari deitu
- ◆ Zure erreferentziako Hematologia Zerbitzuarekin harremanetan lehen bait lehen jarri
- ◆ Zure Autotratamendu Orrian gertakaria idatzi
- ◆ Faktorearen konzentratuaren lote zenbakia idatzi eta lote horretako Faktorerik ez erabili Para la infusión

## Inhibitzaiak

**Odoljario bat tratatzen ari bazara eta Faktoreak eraginik ez badu edo odoljario hobetzen ez bada, Hematologia Zerbitzuarekin harremanetan jarri.**

Gorputzaren immunitate-sisteman akatsa suertatzen denean, sortzen den antigorputz mota bat da inhibitzaiak. Normalki, gorputzeko immunitate-sistemak milioika antigorputz sortzen ditu, honek gorputza babesten du, birus eta germen kaltegarriak erasotuz.

Batzuetan, aldiz, immunitate-sistemak erabiltzen ari zaren Faktorea ez du onartzen eta, birus eta germen kaltegarriekin nahasten du. Orduan inhibitzaiak sortzen du, Faktoreari aurre egiteko programatutako antigorputza eta horrela, Faktoreari eragina kentzen dio.

Kasu hauetan, Faktoreak ez du eraginik eta tratatzen ari zaren odoljarioa ez da hobetzen. Mesedez, kezkarik izanez gero, zure Hematologia Zerbitzuan galdetu ezazu inhibidorei buruz. Inhibidoreak, analitika baten bidez detektatzen dira.

# Hartu behar ez diren medikamentuak

Azido azetilsaliziliko, ASA edo “aspirina” izen komertzialarekin ezaguna dena, ohiko medikamentua da eta, odolaren koagulazioa ekiditzen du. Salmenta askeko medikamentu askok, hau da, katarroarentzat edo minarentzat erabiltzen direnak, ASA dute.

**Medikamentuen etiketak irakurri behar dituzu arretaz. Edozein medikamentu erosi aurretik, farmazilariari galdetu iezaiozu hauen osagarri buruz, hau da, odoljarioak sortu ditzazketen edo ez. Koagulazio arazoak dituzten gaixoei azido azetilsaliziliko osarri bezala duten medikamentuak (ibuprofeno adibidez) ez hartzea gomendatzen zaie.**

Artikulazioetako edo bestelako edozein inflamazioak sortzen duten mina kentzeko erabiltzen diren beste zenbait medikamentu ere, odolaren koagulazioarekin arazoak dituzten pertsonak ez dituzte erabili behar.

**Edozein medikazio hartu aurretik, zure mediku espezialistarekin edo farmazilariarekin ziurtatu, mediku errezetarik gabe erosi ditzazkezun medikamentuak barne.**